



Etxea

Txoriek zotzekin egiten dituzte;
gizakiek lastoz, egurrez edo harriz.
Leku batean finkatu gaitzake,
edo gurgil gainean hara-hona eraman.
Barruan bakarrik bizi gaitezke,
edo kide txiki-handiz, zahar-gaztez inguratuta.
Bizitzan maite gaituen jendea da gure etxea.
Nor da, nor dira nire etxe?

Zertan trebatuko gara...

Bertsotan egiteko teknika osoa ekarriko dugu gogora:
lehenik puntu erdiak osatuz, ostean puntu oso bat, gero
kantukidearekin puntutan eginez, segidan bi punturekin
koplak josiz eta, azkenik, atzekoz aurrera koplak ala bertsoak
osatuz.

Plazara!

Maite dugun norbaiti bertsoa egingo diogu, eskerrak emanez.
Ausartuko al gara gero berari abestera? Edo nola helaraziko
diogu bertsoa?





E t x e a

Uxue Alberdi Estibaritz

Etxe guztiak dira ezberdinak eta bakarrak. Baita bertan bizi den familia bakoitza eta partaide bakoitza ere. Denak ezberdinak badira, zer da etxe bat etxe egiten duena?

Doinua: Gure eliz dorreko Kopla txikia

- 1 Etxeak behar ditu leihoak **mundura** kortinak haizetan ta iturrian **ura**.
- 2 Etxea da egurra lurra ta **buztina** bihotzak babesteko propio **egina**.
- 3 Etxeak behar ditu belarridun **hormak** emozioen giltzak gorputzaren **formak**.
- 4 Etxea bedi hotzak denaren **sutondo** onartzen gaituena gaizki edo **ondo**.
- 5 Etxeak ez du behar ateko **zakurrik** inork ez dezan izan sartzeko **beldurrik**.
- 6 Etxeak behar du non eseri, non **etzan** bihar altxako denak atsedean har **dezan**.
- 7 Etxea zain bezate limoiak, **gaztainak** laguneren beroak ta sukalde **usainak**.
- 8 Etxeak ditu katu beltzak **teilatuan** unibertsozko izar denekin **tratuan**.

Gure etxea handago

Amets Arzallus Antia



Amets Arzallusek eta Ibrahima Baldek “Miñan” liburua idatzi dute. Ibrahimak Ginean izandako haurtzaroa eta Europara etortzeko egindako bidaia gogorra azaltzen du. Zer ote datorkio orain burura, “etxea” esanda?


Doinua: Gu gazte ginadela **Zortziko txikia**

- 1 Etxola borobil bat zuhaitzen **artean** erdi-erdian sua ta bi ahuntz **atean** egun batean denei agur **esatean** etxea sartu nuen poltsiko **batean**.
- 2 Geroztik ibili naiz haizearen **esku** orain zure etxean badut non **babestu** ez da gurea bezain tiki eta **estu** baina limoiondorik atarian **eztu**.
- 3 Etxea esan eta zer dator **burura?** Lastozko teilatuan hiru ***itaxura** bide luzean oinez ekartzen zen **ura** nik maitasuna edan nuen putzu **hura**.
- 4 Eta *pularra baitut hizkuntza **maitea** gertatzen baldin bada **kasualitatea** gure hitzez norbaitek “kaixo” **esatea** iruditzen zait gure etxeko **atea**.
- 5 Etxeminez sentitzen badut **negargura** eskua poltsikora daramat ***ardura** hantxe dauzkat lastoa, buztina ta **zura** berriz eraiki eta sartzen naiz **barrura**.
- 6 Hara nik zenbat dudan katu **kosmikotik** edozer eraikiko nuke **poltsikotik** urruti egon arren sartzen naiz **gogotik** mundua ikusteko etxeko **leihotik**.

*1 Itaxura: itogin

*2 Pularra: Mendebaldeko Afrikako hizkuntza

*3 Ardura: etengabe, sarri



Etxeko lanak

Etxeko lanak lan garrantzitsuak dira, oso.
Etxean gusturago egoten baikara, txukun eta garbi dagoenean.
Denon ardura da zikintzen duguna garbitzea eta ingurukoak zaintzea!
Puntu erdiak osatuz, 8ko txikian bertsotan ariko gara.

Zortziko txikia

Doinua: Gu gazte ginadela

1

etxea **narratsa**

.....

hartu dut **erratza**

.....

sukaldetik **pasa**

.....

ez da hain **erraza**.

3

nire **aspiradora**

.....

entxufe **ondora**

.....

hobe **izango da**

.....

lurrean **gustora**.

2

noa **garbitzera**

.....

flix-flixa **topera**

.....

gaur daukat **aukera**

.....

kalea **ikusten da**.

4

egin **harrikoa**

.....

litro **erdikoa**

.....

apar **handikoa**

.....

eltze **azpikoa**.

5

hautsa kenduko **dut**

.....

ohitura dugu **guk**

.....

armiarma **batzuk**

.....

kaleratu **ditut.**

6

arropa **garbitu**

.....

behar dira **bereiztu**

.....

egin naiz **harritu**

.....

hiru mantxa **ditu.**

7

egin dut **ohea**

.....

ta manta **doblea**

.....

pelutxe **xuabea**

.....

a ze **logurea.**

8

prestatzen dut **sarri**

.....

lapikoa **jarri**

.....

dilistak **ekarri**

.....

daude **zoragarri.**

9

komuna hain **zikin**

.....

eskuilarekin

.....

pazientziarekin

.....

pozik jarri **dadin.**

10

etxea **txukuna**

.....


ze **goxotasuna**

.....


gaur egin **duguna**

.....

zikintzen **zaiguna.**



“Etxea” **karta jokotik** “Etxean gaixorik”
multzoa hartuko dugu.
Puntuari erantzungo diogu, kopla doinuan.
Gure puntua sortzeko, aldiro **3 oin** emango
zaizkigu aukeran.



“Etxea” karta jokoaren barruan,
egoera eta 4 oinak emanda jarduteko
hiru multzo ditugu aukeran.
Karta horiekin puntuka ariko gara, 8ko txikian.

Jolasa

Leihotik begira

Leihotik begira gaude pareko etxeari.

Bizilagun bakoitza zertan ari den ikus dezakegu.

Asmakizunetan ariko gara, koplak osatuz:

oin bikotea hartu eta, koplak batean, **bizilagun baten berri** emango dugu.

Ea gelakideek igartzen duten nor den!

- | | |
|-----------------------|-------------------------|
| 1. hori / erori | 9. harrapatu / begiratu |
| 2. irekita / bixita | 10. kanpoan / auzoan |
| 3. ganora / denbora | 11. eskuetan / orduetan |
| 4. garbitu / ditu | 12. lanpara / zara |
| 5. igota / inporta | 13. dantzari / berari |
| 6. sartu / harrapatu | 14. begira / dira |
| 7. kalera / ibiltzera | 15. kanpora / izango da |
| 8. gatza / saltsa | 16. goxoa / osoa |

.....

.....

.....

.....



Maite dugunari

Denok dugu bizitzan, hurbil edo urrun, zaintzen gaituen jendea.

Eskerrik asko esatea merezi dutenak.

Maite dugun norbait hautatu eta bertsoa egingo diogu.

Bertsoa sortzeko, **atzeko zurrerako teknikaz** ariko gara.

Horretarako, hemen ditugu aukeran **azken puntuak eta oinak**.

Behin bertsoa eginda, nola helaraziko diogu maite dugun horri?

Ausartuko al gara berari abestera?

Zortziko txikia

Doinua: Gu gazte ginadela

- | | |
|--|---|
| 1 esku-zabala / mundiala / bezala jakin ezazu asko maite zaitudala . | 5 ondotik / zugatik / pozik eskerrik asko zure pazientziagatik! |
| 2 ametsak / behintzat / niretzat maite zaitudalako bertso hau zuretzat . | 6 bare / gabe / grabe seguru sentitzen naiz ondoan bazaude . |
| 3 gara / ikara / besarkada txispa ematen didan indarra zu zara . | 7 traba / ikara / hara noizbait berriro ere elkartuko gara . |
| 4 ona / broma / zoriona hoberenak zarete aitona eta amona! | 8 apuru / ditugu / seguru beti bihotz barruan izango zaitugu . |

